

DOINUELE EUSKARAZKO PLAZEN SAREA

Aurtengo zortzi hitzorduak

Euskara hutsezko liburuak eta diskoak kalera ateratzen dituzten azokak eta ekimenak zortzi dira Euskal Herri osoan. Gutxi eta txiki, agian. Baina izaeraz bereziak, gehienak duela sei urtetik hona sortuak eta iaiztik sarean elkartuak. 2024ko azoka eta ekimen bakoitza noiz izango den aurkeztu dute, elkarrekin.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Euskaraz irakurtzea eta musika entzutea plazer duenak gozatu ederra hartu dezake zortzi plaza hauetan barrenako itzulia egiten badu aurtan. Urtarriletik abendura lau lurraldetan egingo duen bidaia bitxi horretan aurkituko ditu adin eta sormen generoetan berezitutako azokak eta ekimenak, baita publiko orokorrarentzako direnak ere. Lazkaoko azoka da esperientziarik luzeena duena, iragan abenduan egin baitute 35. aldiz. Hamargarren urte biribila beteko du ilbeltza honetan bertan (H) ilbeltza euskal nobela beltzaren asteak. Eta gainerakoak geroztik sortuak dira, urtez urte sendotzeko borondatea dutenak, Euskal Herriko hitzordu ezagun izaiera iristeko. 2023tik elkartuta daude Doinuele sarean eta lehen urtetik bidea gozagarriago sentitu dute, elkarren esperientziak ezagutu, informazioa partekatu eta indarrak batzeari esker.

**(H)ILBELTZA**

Urtarrilaren 22tik 28ra, Baztanen
ilbeltza.blogspot.com

Euskal nobela beltzaren astea. (H)ilbeltza elkarteak antolatuta. Aurtan X. edizioa izango da. Egitarau hau ondu dute:

- **Urtarrilak 22**, Arizkungo Medikuaeren etxean 19:30ean: Idazleekin solasean, VI. (H)ilbeltza bekaren irabazlea. Beñat Irastorza, *Altxa, hildakoak* Fred Bargasen eleberriaren itzulpenari buruz solasean.
- **Urtarrilak 24**, Anizko Mendi Elkartearen 19:00etan: *Eusebio Erkiaga: Arranegitik bertze auzo batzuetara* Miren Agur Meaberen solasaldia.
- **Urtarrilak 25**, Berroetako Gure Ametsa elkartearen 19:00etan: Jon Alonso

Carvalho Euskadin liburuaz solasean.

- **Urtarrilak 26**, Iruritako Gizarte Bilgunean 19:30ean: *Mirande, film baterako zirriborroa* dokumentala Josu Martinez zuzendariarekin.
- **Urtarrilak 27**, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean 11:00etan: *Sorgin-ehiza Euskal Herrian* mahai-ingurua Amaia Nausia, Asisko Urmeneta eta Juainas Paul Arzaken artean.
- **Urtarrilak 27**, Erratzun: 17:00etan elkartearen liburu aurkezpenak: Ernesto Praten *Mendeku eskubidea*, Mikel Begoñaren *Hiru etxe Santa Monikan* eta Xabier Lasaren *Ura ez baita beti gardena*. 18:30ean *Eblatz* Susmagarrien gaua Erratzun barrena.
- **Urtarrilak 28**, Elizondon: 10:30ean plazatik abiatuta *Erraiak etsai* itzuli beltza Beartzunen. 19:00etan Arizkunenea Kultur Etxean izu-garirrizko bertso saioa Nerea Ibarzabal, Alaia Martin eta Saioa Alkaizaren ahotik.



Ezkerretik eskuinera eta behean: Julen Garate (Geure Gelatik), Maddi Zubeldia (Ziburuko azoka), Maitane Maritorea (Hilbeltza), Amaia Hennebutte (Ikusi Mikusi) eta Joxepa Madariaga (Lazkaoko azoka) eta goiko lerroan ezkerretik eskuinera Tasio Gorrotxategi (Literaturia), Maider Elkano (Ikusi Mikusi) eta Xabi Ezponda (Hernaniko azoka).



GEURE GELATIK

Apirilaren 12tik 14ra, Azkoitia
Emakumeek idatzitako liburuen azoka. Maxixatzen Euskaldunon Elkarateak antolatuta. Aurten 3. edizioa izango da.



ZIBURUKO AZOKA

Ekainaren 1ean
Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak. Baltsan Elkarateak eta ARGIAk elkarlanean antolatua, aurten 5. edizioa izango da.



SORMENE

Urriaren 30ean, Galdakaon
sormene.eus
Literatura azoka. Galdakaoko Udaleko euskara zerbitzuak antolatua, aurten 6. edizioa izango da.



HERNANIKO AZOKA

Urriaren 5ean
Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak. Dobera euskara elkarateak antolatua, aurten 4. edizioa izango da.



LITERATURIA

Maiatzaren 24tik 26ra, Zarautzen
literaturia.eus
Literatura azoka eta ekitaldiak. Literaturia kultur elkarateak antolatua, 9. edizioa izango du.



IKUSI MIKUSI

Urriaren 11n eta 12an, Saran
ikusimikusi.eus
Haur eta gazte literatura eta ekitaldiak. Mari Gorri, Galtzagorri, Pamiela eta Sarako Udalak elkarlanean antolatua, aurten 4. edizioa izango da.



LAZKAOKO AZOKA

Abenduaren 13tik 15era
Liburu eta disko azoka eta ekitaldiak. Gerriko kultur elkarateak antolatua, aurten 36. edizioa izango da. ●